

BERRIGARA

Adokina jarriko
da Artekalen

206. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1995, urriak 6

Jesus Altuna
pintorearekin
berriketan

Herri kirolak

Gazteek nagusien testigua hartu dute

Autoberezi



FIAT

Alfa Romeo



ANTIGUA AUZOA, ANTZUOLA (GIPUZKOA)

☎ 76 62 10 / 76 62 75



• Zainduiozu bista, alde ederra igarriko diozu •



Zatoz orain OPTICOS ASOCIADOSera

irailean zehar zure bistaren azterketa osoa egingo

dizugu eta gure optikoetan aukerarik zabalena

aurkitu ahal izango duzu, preziorik onenean.

Berriz eskolara kanpaina

OPTICOS ASOCIADOSen betaurreko klase asko ditugu



3 urtez gorakoentzako betaurrekoak



Ikasle pribilegiatuentzakoak



Etxeko bihurrientzat



eta, jakina... pinpirinentzat
ukipen lenteak

zure ikusmena hobetzeko

P. Manso optika

Irizar pasealekua, 2 BERGARA

Izan ezazu gogoan jasotzen dugun informazioaren %80a begietatik jasotzen dugula. Horregatik gauza garbi dugu...
Errendimendu hobea izan dezan zainduiozu bista.

ERROTALDE JAUREGIA
48100 Bergara
Telefonoa eta Faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:
BERRIGARA Elkartea.
Euzkerreka, 13 Bergara.
Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

Zuzendaria:
Eneko Azkarate

Erredakzioa:
Eduardo Mendibil
Miguel Elkoroberezar
Luis Larrañaga

Maketaria:
Eneko Azkarate

Publizitatea:
Eneko Azkarate

Karrikaturak:
Eneko Elorza

Testuen zuzenketak:
Eneko Plazaola
Eneko Laskurain
Eneko Labaien

Erredakzio kontseilua:
Eneko Elorza
Miguel Ángel Elkoroberezar
Eneko Labaien

Komikiak:
Eneko Rodríguez
Eneko Ortega & Jon Alvarez
Eneko Ugaldede
Eneko Azkarate

Banaketak:
Eneko Elgorri taldea

Tirada:
1.000 ale.

Primategia:
Eneko Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:
BERRIGARA

Lege gordailua:
76 50 91

ISSN:
1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako irazpenen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Legeburu Batzarrearen Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?


AGUSTIN GURRUTXAGA Pol-Pol Argazki Taldeko burua

- Igandean Rally fotografikoaren edizio berri bat izango da.

- Horrela da, bai. Urte asko dira lehen edizioa egin zenla eta tradizio askoko proba dela esango nuke. Kanpotik ere jende dexente etortzen da parte hartzera eta, batzaz beste, 40 bat lagun bildu izan gara azken urteotan. Izen-ematea igandean bertan egin behar da 8.30etatik 9.30etara zabalago dugun lokalean. 1.000 pezeta ordaindu behar dira eta horren truke partaideek diapositiba karrete bat jasoko dute. Ordubietan karreteak jasoko dira.

- Zeintzuk izango dira gaiak?

- Hori igandean bertan zozketa bidez erabakitzen da. 4 gai jartzen



dira eta beste 2 libreak izaten dira. Sariak, berriz, lehen, bigarren, hirugarren, lokal onena eta gazte onenarentzat egongo dira. Epai mahaiaren erabakia eta proiektzioa datorren urriaren 21ean 6etan izango da eta sari ematea urriaren 28an egongo da, 19.30etan Zabalotegiko lokaletan. Karreteak urriaren 16an itzuliko dira.

"Igandeko argazki rallyra 40 bat lagun etortzea espero dugu"

I T U R R I O N E T I K

Artekalen adokina jartzeko proiektua aztertuko du Udalak

Udala Artekalen adokina jartzeko proiektua aztertzen ari da. Udaletxearen berrikuntza egin zenean Udaletxearen atzekaldean jarritako adokina kale osoan jarri nahi da, hortarako fetxarrik oraindik zehaztu ez den arren. Hasierako kalkuluen arabera, lan horiek 50 milioi pezeta inguruko aurrekontua izango dute.

Udalean adierazi digutenez, oraindik prozesu luzea bete behar da lan hori burutu ahal izateko. Oraindik gainera ez dago proiektu horretarako partidarik baina baliteke 1996ko aurrekontuetan sartzea.

Udaletxe atzekaldean adokina jartzeko 12 milioi pezeta pasatxo bideratu ziren.


E S A N D U T E

"Iaz neronek emandako ikastaroan bi taldetan banatu behar izan nituen ikasleak, zegoen jende pilagatik. Gainera EGA ezezik bestelako ikastaro asko ere badira. Urteotan egindako lana zapuzteak kalte izugarria egingo dio euskarari, zalantzarik gabe"

MIREN AZKARATE
Euskaltzaina eta EKDKo irakasle ohia
ARGIA

"Euskarazko adarra kentzen bada, Estatu espainiarreko beste edozein UNED bihurtuko da Bergarakoa, euskal ezaugarririk gabekoa. Kontutan hartu UNEDen egiten den euskal ekintza bakarrak departamentu honetatik ateratzen direla"

JON LOPATEGI
Bertsolaria eta UNEDeko irakasle ohia
ARGIA

**GUANTANAMERA**

Ostirala: 22.30

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).

**BATMAN FOREVER**

Igandea: 11.30.

**MALICIA**

Osteguna: 17.00, 19.30, 22.15.

Zinea

▼▼ **Tomás Gutiérrez Alea** eta **Juan Carlos Tabio** kubatarrek izugarriko arrakasta lortu zuten munduan zehar *Fresa y chocolate*arekin. Oraingoan ere komedia eta drama tartekatzen dute, bitartean Kubako sistemaren inguruko erreflesioa planteatuz. Hildako baten gorpuaren garraioak irlaren ikuspegi berezia emango digu. **Jorge Perugorria**, **Mirtha Ibarra** eta **Carlos Cruz** aktoreekin.

▼▼ Aurreko bi zatien arrakastaren lekuko, hona hemen *Batman* comic eroiaren abentura berriak. Honetan ere efektu berezi eta dekoratu aipagarriak eta istorio entretenigarria. Erreparto buruan **Val Kilmer** *Batman*en pape-rean eta berarekin **Nicole Kidman**, **Jim Carey** eta **Tommy Lee Jones**.

▼▼ **Harold Becker** zuzendariaren (*Cuando me enamoro*, *Melodía de seducción*) thriller honetan gezurra, traizioa eta, nola ez, hilketa bat planteatzen zaizkigu. *Tracy* (**Nicole Kidman**) eta *Andy* (**Bill Pullman**) senar-emaztearen bizitzan hirukia osatuko duen *Jed* (**Alec Baldwin**) agertuko da eta buruhauste bat baino gehiago ekarriko dizkio *Andy*ri.

Deiak

▼ **Mikel Murgizuk** lumatxo egindako lanak Kultur Etxean igandera arte ikusgai.

▼ **Juanjo Altuna** bergararren margo erakusketa Donostiako Olaetxe Galerian urriaren 24ra arte.

▼ **Insumiso Eguna** igandean Bermeon. Autobus txartelak Arrano, Pol-Pol eta Zuhaitzi tabernetan.

▼ **3. Munduaren** aldeko Arte Marzialen Jaialdia larunbatean 16.30etan Arrasateko Musakolako Kiroldegian. Aikido, Judo, Jiu-jitsu, Karate, Kiokushinkai eta Ninjutsu espezialitateetako erakustaldia. Jasotako dirua Ruandaren alde izango da. Sarrerak, 500 pezeta helduentzat eta 200 18 urtetik beherakoentzat.

Ogia

▼ **Igandea 8:** Konde.

FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 6:** Camacho.
- ▼ **Larunbata 7:** Puy.
- ▼ **Igandea 8:** Puy.
- ▼ **Astelehena 9:** Guallar.
- ▼ **Asteartea 10:** Estella.
- ▼ **Asteazkena 11:** Mozos.
- ▼ **Osteguna 12:** Camacho.

Goierri**AUTOGIDARIEN ESKOLA**

Fraiskozuri Plaza, 5 BERGARA ☎ 76 41 50

**LIZAR
ALTZARIAK**

Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53

XVI. mendeko altxor bat

Antonio Perla Batzokiko zeramikak aztertzen

Antonio Perla Arte Historiagile donostiarra Agirrebeña Etxeko zeramikak identifikatzeko lanetan ari da pasa den maiatzetik. Batzokiko fatxada berrizteko lanetan ari ziren Luis Ros eta Gregorio León arkitektoak eta Xabier Aranburu udal museologoa zeramiken balio artistikoaz ohar-turik, Blanca Gómez de Segura ontzigintza adituarekin harremanetan jarri ziren eta Perlari ikerketa sakonago bat egitea eskatu zitzaion. Fatxadako plaka horiek XVI. mendeko zeramika estufa batekoak izan daitezke. Perlaren hitzetan, "estufa horiek Europa Iparraldean eta Ekialdean daukate bere jatorria XIV eta XV. mendeetan eta, XVI. mendean oso arrakastatsuak izan ziren".

Estatuan, berriz, ez dago estufa horien arrastorik eta Batzokiko zeramikak orainarte aurkitutako lehenak izango lirarteke. Bergarara nola iritsi ziren jakiteko Perlak bere ikuspegia eman digu: "Flan-desera, Alemaniara doan norbaitek elementu sinboliko modura jauregiaren fatxadan jartzen ditu. Carlos V. eta Felipe



Agirrebeña Etxeko zeramikak XVI. mendearen ingurukoak direla uste dute adituek.

II.aren kanpainetan parte hartzen zuten nobleek ekartzen zituzten eta Ingoterran ere antzeko zerbait gertatu zen". Perlaren ustetan, "Batzokikoa ez zuten inoiz erabili eta ekarri bezain laister fatxadan jarri zituzten zeramikak. Estufak mezu bat duen programa ikonografiko bat dauka: 7 astroak agertzen dira eta eguzkia, esate baterako, Carlos V.aren irudiarekin identifikatzen da.

Merkurio, berriz, ez dator bat ikonografia klasikoarekin, programak editatu eta erreproduzitu egiten zirelako".

Honelako estufak egiten zituzten tailerrak hortara espezializaturik zeuden eta gehienetan artearekin zerikusia zuen jendeak eramaten zituzten: ejkutore oso onak omen ziren eta grabatuen errepertorio zabala zuten.

Batzokiko fatxadaren kasuan arkitektura gaiak

agertzen dira: Jakinduari-aren tenploa, Fons philosophia ea Porta amatorium esate baterako. Antonio Perlak esaten duenez, "fakturazioa oso ona da. Pieza guztiak (53) fatxadan kontserbatzen dira eta beste pieza bat eta bi fragmentu errekupe-rtzea lortu da". Perlak emandako datuak probisionalak dira oraingoz eta bere estudioa urte amaierarako bukatzea espero du. Hala ere dokumentu oso baliotsua dela adierazi digu, izan ere, alderdi estetikoaz gain, honelako estufarik ez delako eza-gutzen Estatu osoan.

Estatuan aurkitzen diren era horretako lehenak dira

MUJIKA

Jantzidenda

Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91

**INFERNUKUA
TABERNA**

Masterreka, 23 ☎ 76 18 49

Bergarako UNEDeko EKD aintzindari

Bergarako UNEDi babesa ematen dituen Patronatu kideei:

Ekaineko azken egunetan, txakurrak oilagorra altxatzen duen bezala, UNEDi buruz, sinestezineko zurrumurruek entzuten hasi ginen kalean, zeinak zoritxarrez egiazkoak bihurtu baitira.

UNEDen, 33 langiletik 12 bakarrik geratzen dira eta ondorioz, dauden zerbitzuek murrizketa gogorra jasango dute, are okerrago EKDren kasuan, berau guztiz desagertuko baita. Hau jakitean, Bergarako lexikoa lantzen ibili garenon desadostasuna agertu nahi genuke, hain aldrebesa iruditu zaigun erabaki honekiko.

Euskal Kultur Departamentu honek, duela bi urte inguru, proiektu berezi baten parte hartzeko aukera eman zigun, hau da, lanbide ezberdinetan galtzear dauden hitz, esaldi eta zenbait bitxikeria biltzea. Amaitutako lanek, bi euskaltzainen, Udal arduradunen eta Euskal Kultur Departamentuaren oniritzia jaso ondoren, taldearen asmoak, udazkenean zuzenketak egin eta luzaro gabe lanen batzuk argitaratu eta besteren batzuk garatzea ziren.

Hau guztia behar bezala burutzeko ezinbestekoak izan zaizkigu Euskal Kul-

tur Departamentuaren zuzenketak, aholkuak eta eskeinitako laguntza. Gure lanak bezala, esan dezakegu, beste 200 lanek ere laguntza jaso dutela, 18 urteren puruan departamentu honek aintzindari pausoak eman baititu euskararen inguruan. Departamentu honen lana hurbiletik jarraitu dugunontzat, bere desegiteak, euskaldunentzat, Deba bailarako entzat batez ere, izugarriko galera suposatzen duela deritzogu.

Nork beteko du hutsune hau? Aurten "ikertze" ikastaroa antolatuta dago eta Filologia egiterik ez dutenentzat oso aukera polita eskeintzen du hizkuntza gehiago sakontzeko. Nork antolatuko ditu hemendik aurrera horrelakoak? Eta non? Nork egin behar die tira euskal kulturaren inguruan eman behar diren zenbait ikerketei? Eta geroz eta gehiago indartzen ari den herri hizketaren idatz arauak. Nork bateratuko ditu?

Denok dakigu euskararen inguruan ez dagoela inor soberan eta beste hainbeste baletoz zertxobait hobeto ibiliko ginake. 18 urtetan egindakoak ondo baino hobeto bermatzen dute departamentu honen izatea. Erabaki oker hau hartu duzuenoi, atzera botatzeko eskatzen dizuegu. Euskarari honenbeste eman dion departamentu honek, orain arte bezala bizirik, osasuntsu eta emankor jarrai dezan.

Eta eskatzen dizuegu hau arren, zuek ere euskera maite duzuelakoan.

**IÑAKI ARANA, AMAIA OLAÑETA,
ANAJE NARBAIZA, ARGİÑE
URKIOLA ETA JAIONE ISAZELAIA
(TALDEKIDE ETA IKASLE OHIAK)**

Denok Bermeora!!


Aurten Bermeen ospatuko da "Intsumiso Eguna". Hantxe bilduko gara intsumisioaren alde apostu egiten dugun guztiok. "Intsumisioarekin Euskal Herriaren desmilitarizaziorantz" izango da aurten ere, Bermeora joango garenok eramango dugun leloa. Ejerzitoen abolizioa lortu nahian, Intsumiso Eguna 95 ospatuko dugunok argi daukagu: "arazoa ejerzitoak dira eta horien aurka intsumisioa aldarrikatu behar dugu".

Bermeoko portutik hasi eta ibilbide antimilitarista osoan zehar, ikuskizun ugari izango dira: bertsolariak, antzerkia, zirkoa eta Intsumisioaren kontzertua beste batzuen artean. Hauek guztiak ikusi ahal izateko, autobusak irtingo dira, Euskal Herri guztiatik. Aurrekoa galdu bazenuen badakizu zer egin: hartu intsumisioaren autobusa eta denok Bermeora!

ANTZUOLAKO INTSUMISO TALDEA

Tiira biraka

15 urte CESIDen, meritu
eta baloreari domina



200 kasu erabaki eta
Luis Roldan harrapatu;
benetako espia!, eta ez
kasualitatez.



Bere sekretua....



◆ **EAJren ez-ohizko batzarra**

Asteartean, hilak 10, iluntzeko 8etan ez-ohizko batzarra izango da Batzokiko areto nagusian. Gaien interesgarritasuna kontutan izanik, EAJk dei egiten die alderdikide guztiei batzarrean parte hartzeko.

◆ **Autobusak Nafarroa Oinezera joateko**

Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Aranzadi Ikastolak autobusak jarriko dituzte urriaren 16an Tuterara Nafarroa Oinezera joateko. Irteera 8.30etan izango da Beheko Estaziotik eta itzulera arratsaldeko 7etan.

◆ **Islada Bideogela**

Kultur Etxean dagoen Islada Bideogelak jakinarazi digu datorren asteazken, ostegun eta ostiralean, Pilarikako zubia dela eta, itxita izango dela.

HILDAKOAK

Eleuterio Elgero Losada
Irailak 28, 83 urte

JAIOTAKOAK

Xabier Arrizabalaga Agirre
Urriak 2

Alzheimer gaisoen laguntza bultzatzeko taldea martxan



Alzheimer gaisoen familiarrak, elkarri laguntzeko, hilean bi bider biltzen dira Kultur Etxean.

Aurreko urteko apiriletik, hamabost egunetik behin, Alzheimerreko autolaguntza taldea biltzen da Bergarako Kultur Etxean.

Taldeko kideek (emakumeak denak) beren kasuak elkarri komentatu eta Alzheimer gaisoari eman behar zaion tratamendua aztertzea dute helburu. Beren hitzetan, *"oso nekagarria da 24 ordutan beren menpe egotea eta tentsio hori modu hobereanean eramaten saiatzen gara. Horretarako elkarri ulertu eta erantzutea ezinbestekoa da"*.

Alzheimer gaisotasuna dementzia bat da eta, azken datuen arabera, 5.000 bat gaiso daude Gipuzkoan. Zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta gaisotasuna izateko aukera gehiago daude.

Egoera estresagarria

Gaisoa ez da gauza bere burua zaintzeko eta autolaguntza taldekoek esaten dutenez, *"neurinak galtzen dituzte eta guztiz enredatuta egoten dira, askotan haurtzaroko oroitzapenak gogoratuz eta familiakoak ezin ezagutzen. Oso egoera es-*

tresagarria izaten da. Eta txarrean da bonetarako ez dagoela laguntza konkreturik, leku guztietan ateak ixten dizkizute eta gaisoarekin etxera bueltatu beharra daukazu".

Oraingoz 9 emakume biltzen dira hilaren lehen eta hirugarren asteartean, 5etatik 6.30etara, Kultur Etxean. Era berean, dei bat luzatu nahi diete honelako arazoren bat duten guztiei bilertara joateko eta, bide batez, gutxienez egunez gaisoak jasoko lituzkeen zentru bat aldarrikatzen dute.

Publi Resa

PUBLIZITATE ARLOKO ETA ENPRESETARAKO OPARIAK

Armagin kalea 3, 5. behea EIBAR. Tfnoa eta Faxa: 70 14 97

Pin-ak, llaberoak, boligrafoak, pegatak, agendak, zorrotoak, riñonerak, bonetak, erlojuak, idaztegiak, kamisetak, metxeroak, bisera...
TOKAI METXEROAK: 500, 45 pezetatan bakoitza. Markaketa barne.

◆ **Bi uberar hil ziren asteazken gauean kotxe istripuan**


Jose Olañeta Zubiata eta Martina Olañeta Zubiata anai-arrebak hil egin ziren asteazken gauean Eskoriatzan gertatutako kotxe istripuan. Uberako Olañeta baserriko anai-arrebek Ford fiesta batean zihoazenean Ford-sierra baten kontra aurrez-aurre txoke egin zuten eta ondorioz, Martina bertan hil egin zen. Jose eritetxera zeramatenean hil zen. Josek 57 urte zituen eta karmeliatarra zen eta Martinak, berriz, 61 urte eta Eibarrera ezkonduta zegoen. Beren aldeko hileta elizkizunak gaur, ostirala, arratsaldeko 6.30etan Uberako San Paulo elizan egingo dira.

◆ **BERRIGARA asteazkenean**

Datorren asteko BERRIGARA ez da ohiko moduan ostiralean banatuko. Pilarikako zubia dela eta, asteazkenean jasoko duzu zure etxean. Ostiralean jaso orde, beraz, asteazkenean izango duzu datorren asteko BERRIGARA.

◆ **Gas instalakuntzak**

Gas instalakuntzak egiten dituen Bilboko enpresa bat Bergaran etxez-etxe omen dabil butano erreguladore eta abarrak aldatzen. Hori dela eta, herriko iturkinek argi utzi nahi izan dute ez dela beharrezkoa aldaketa horiek egitea eta erabiltzaileei jakinarazi nahi die arazoren bat izanez gero jar daitezela harremanetan gasa instalatu zien iturkinekin.



Garaixek balio artistiko handia dauka Gipuzkoan dagoen bakarra baita.

Agarreko Garaixearen inguruko ikerketa egingo du Udalak

Hongoak agertu dira garaixearen behelaldean

Agarreko Garaixearen behelalde hongoz kutsatuta dagoela ikusirik, Bergarako Udalak garaixearen inguruko ikerketa bat egitea erabaki du. Udalak Iñaki Aspiazu arkitekto bergarra eta Xabier Aranburu udal museologoa aukeratu ditu egin beharreko lanen ardura eramateko. Aipatutako garaixea Agarre baserriaren ondoan kokaturik dago eta Gipuzkoan dagoen era honetako bakarra da. 1983etik 85era bitartean Iñaki Aspiazuk egin zituen garaixearen berrikuntza lanak.

Aspiazu arkitektoa honelako lanetan espezializaturik dagoen enpresa batekin jarri da harremanetan dagoeneko. Garaixean agertu diren hongoei buruzko ikerketa egingo da, horren jatorria aztertu eta kon-

ponbide bat eman ahal izateko. Hasierako informe baten arabera, hongoak behelaldean eta zutabetan agertu dira eta informeak azpimarratzen duenez, "hongoen agerpena ez da oso normala gebienetan horrelakoak bezetasuna dagoen leku itxietan agertzen baitira". Pisuaren behelaldeak kanpoaldera ematen du eta, batzutan bertan animaliak izaten direnez, horixe izan daiteke hongoen agerpenaren jatorria. Hongoak aztertzeaz gain, garaixearen egurra aztertu eta mantenuaren jarraipen bat egiteko asmoa du Udalak. Garaixea balio artistiko handikoa da eta Telesforo Aranzadiren ustez, ondoko Agarre baserria San Martin de Agirrerren etxea izan zen.

MUJIKA
Burdinaki denda
 Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

Maxim's
 ☎ 76 20 61



Ordutegi aldaketak buruhausteak ekarri dizkie PESAKo erabiltzaileei.

PESAKo ordutegi berria jarri zen martxan aurreko astean

Aldaketa aipagarriak Gasteiz, Arrasate eta Eibarrekin

PESA autobus konpainiak hainbat zerbitzuren ordu aldaketa martxan jarri zuen aurreko astelehenean, irailak 24. Konpainiak inolako abisurik gabe egin zituen aldaketak eta horrek buruhauste bat baino gehiago ekarri die PESAKo autobus erabiltzaileei. Bergarako kasuan, aldaketa aipagarrienak Bergara Arrasaterekin, Gasteizekin eta Eibarrekin lotzen dituen lineatan eman dira. Ordutegietan eman dira aipatutako aldaketak, PESAKo arduradunen hitzetan zerbitzuak, murriztu beharrean, gehitu egin baitira.

Itteerei dagokienez, Bergararik Bilbora 4 autobus aterako dira egunero, Donostiara (Tolosatik) beste bi aterako dira, autopistatik 5

autobus egunero (jaiegunetan 2 bakarrik), Iruñeara bi eta, azkenik, Gasteizera 8 autobus aterako dira (jaiegunetan bat gutxiago). Azken linea honetan lehen orduoro autobus bat izaten zen eta orain zerbitzu batzuk kendu dira.

Arrasate eta Eibarrera 15 autobus aterako dira (larunbatetan 11 eta jaiegunetan zazpi), Antzuolara 9 autobus egunero (larunbatetan 5 eta jaiegunetan 4), Oñatira 6 aterako dira (astebaruan bakarrik), Elgetara 3 (larunbat eta jaiegunetan 2) eta, azkenik, Zumarragara, 6 autobus egunero (larunbat eta jaiegunetan bi). Beste herrietatik Bergarara dauden zerbitzuak eta ordutegiari buruzko xehetasunak 76 16 46 telefonoan jaso daitezke.

◆ Nafarroa Oinez

Urriaren 15ean Tuteran ospatuko den Nafarroa Oinezēn, txoznan lan egiteko jendea behar da. Interesatuek Jardun Elkartera (76 08 19 telefonoa) deitu dezakete. Autobusa debalde izango da.

◆ Liburutegia

Hurrengo astean Kultur Etxeko liburutegia astelehenetik asteazkenera bakarrik izango da zabalik, honako ordutegiarekin: goizez 10etatik ordubietara eta arratsaldez 15.30etatik 19.30etara. Ostegun, ostiral eta zapatuan itxita egongo da.

◆ Bedelkarren oharra

BEDELKAREk gogorarazten duenez, San Martineko ferian egin zen txerri zozketaren dirua jaso nahi duten elkarteek beren proiektuak aurkeztu behar dituzte lehenbizi. Argibide gehiago 76 04 68 telefonoan. Epea, urriaren 14ra arte.

◆ Akuluren ikastaroa

Bergarako Akulu AEK euskaltegiak euskaraz idazten eta irakurtzen ikasteko ikastaroa antolatu du. Interesatuek 76 05 18 telefonora deitu dezakete.

◆ JARDUNen eskulan ikastaroa

Jardun Elkarateak antolatuta, eskulan ikastaroko beste talde bat osatu nahi da. Klaseak urriaren 16tik apirilera bitarteko astelehen eta asteazkenetan izango dira. Prezioa, 5.000 pta. bazkideentzat eta 6.000 besteentzat. Argibideak 76 08 19 telefono zenbakian.

GURIA

Taberna

Bidekurutzeta, 5
☎ 76 20 34



LASA
Jatetxea

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 76 10 55 Faxa: 76 20 29

◆ Autobusen ordutegi berria ◆

Irteerak BERGARAtik

LAN EGUNAK	LARUNBATAK	JAI EGUNAK	LAN EGUNAK	LARUNBATAK	JAI EGUNAK
------------	------------	------------	------------	------------	------------

Bergara-Bilbo

07:15	07:15	10:10
08:40	08:40	14:30
14:30	14:30	18:10
18:10	18:10	19:15

Bergara-Eibar

06:30	06:30	14:20
07:20	08:20	15:20
08:20	10:20	16:20
09:20	12:20	17:20
10:20	14:20	18:20
11:20	15:20	19:20
12:20	16:20	20:20
13:20	17:20	—
14:20	18:20	—
15:20	19:20	—
16:20	20:20	—
17:20	—	—
18:20	—	—
19:20	—	—
20:20	—	—

Bergara-Donostia (Tolosatik)

09:00	09:00	10:00
18:00	18:00	18:00

Bergara-Donostia (Autopistatik)

07:35	07:35	10:05
08:35	08:35	19:35
13:35	13:35	—
14:35	14:35	—
19:35	19:35	—

Bergara-Gasteiz

07:00	07:00	09:00
08:00	08:00	11:00
09:00	09:00	14:00
11:00	11:00	15:00
14:00	14:00	17:00
15:00	15:00	19:00
19:00	19:00	21:00
21:00	21:00	—

Bergara-Oñati

07:30	—	—
09:30	—	—
13:30	—	—
15:30	—	—
18:30	—	—
19:30	—	—

Bergara-Soraluze

06:30	06:30	14:20
07:20	08:20	15:20
08:20	10:20	16:20
09:20	12:20	17:20
10:20	14:20	18:20
11:20	15:20	19:20
12:20	16:20	20:20
13:20	17:20	—
14:20	18:20	—
15:20	19:20	—
15:20	20:20	—
16:20	—	—
17:20	—	—
18:20	—	—
19:20	—	—
20:20	—	—

Bergara-Iruñea

08:00	08:00	09:20
14:00	14:00	18:20

Bergara-Arrasate

07:35	07:35	15:35
08:35	09:35	16:35
09:35	11:35	17:35
10:35	13:35	18:35
11:35	15:35	19:35
12:35	16:35	20:35
13:35	17:35	21:35
14:35	18:35	—
15:35	19:35	—
16:35	20:35	—
17:35	21:35	—
18:35	—	—
19:35	—	—
20:35	—	—
21:35	—	—

Bergara-Elgeta

08:40	08:40	10:10
13:45	18:10	18:10
18:10	—	—

Bergara-Zumarraga

08:00	08:00	09:30
09:00	09:00	10:00
11:00	14:00	18:00
14:00	18:00	18:30
14:10	—	—
18:00	—	—

Bergara-Antzuola

06:40	08:00	09:30
08:00	09:00	10:00
09:00	14:00	18:00
11:00	18:00	18:30
14:00	20:30	—
14:10	—	—
17:00	—	—
18:00	—	—
20:30	—	—

Irteerak BERGARARA

LAN EGUNAK	LARUNBATAK	JAI EGUNAK	LAN EGUNAK	LARUNBATAK	JAI EGUNAK
------------	------------	------------	------------	------------	------------

Bilbo-Bergara

08:00	08:00	09:00
12:30	12:30	12:30
15:30	17:00	17:00
17:00	19:30	19:30
19:30	—	21:00

Eibar-Bergara

07:00	07:00	15:00
08:00	09:00	16:00
09:00	11:00	17:00
10:00	13:00	18:00
11:00	15:00	19:00
12:00	16:00	20:00
13:00	17:00	21:00
14:00	18:00	—
15:00	19:00	—
16:00	20:00	—
17:00	21:00	—
18:00	—	—
19:00	—	—
20:00	—	—
21:00	—	—

Donostia-Bergara (Tolosatik)

07:00	07:00	08:30
16:30	16:30	16:30

Donostia-Bergara (Autopistatik)

08:00	08:00	18:00
12:30	12:30	20:45
15:00	18:00	—
18:00	19:30	—
19:30	20:45	—
20:45	—	—

Gasteiz-Bergara

06:30	06:30	08:30
08:30	08:30	09:00
12:30	12:30	10:30
16:30	16:30	12:30
18:30	18:30	16:30
19:30	19:30	18:30
20:30	20:30	19:30
—	—	20:30

Antzuola-Bergara

06:50	08:30	10:00
08:30	12:10	18:00
09:40	18:00	18:40
12:10	19:40	—
16:40	20:40	—
17:15	—	—
18:00	—	—
19:40	—	—
20:40	—	—

Iruñea-Bergara

10:30	10:30	17:00
18:00	18:00	20:30

Arrasate-Bergara

06:15	06:15	14:05
07:05	08:05	15:05
08:05	10:05	16:05
09:05	12:05	17:05
10:05	14:05	18:05
11:05	15:05	19:05
12:05	16:05	20:05
13:05	17:05	—
14:05	18:05	—
15:05	19:05	—
16:05	20:05	—
17:05	—	—
18:05	—	—
19:05	—	—
20:05	—	—

Soraluze-Bergara

07:15	07:15	15:15
08:15	09:15	16:15
09:15	11:15	17:15
10:15	13:15	18:15
11:15	15:15	19:15
12:15	16:15	20:15
13:15	17:15	21:15
14:15	18:15	—
15:15	19:15	—
16:15	20:15	—
17:15	21:15	—
18:15	—	—
19:15	—	—
20:15	—	—
21:15	—	—

Elgeta-Bergara

08:50	08:50	09:50
14:05	17:50	17:50
17:50	—	—

Oñati-Bergara

07:10	—	—
08:00	—	—
13:10	—	—
13:50	—	—
15:10	—	—
17:10	—	—
19:10	—	—

PESA

PESA Garraioak

BERGARA
☎ 76 16 46

DONOSTIA
☎ 21 95 55

BILBO
☎ 416 94 77

Elikadura

Perretxikoak

- Zer behar da perretxiko biltzaile ona izateko?

- Beste gauzetan bezala afizioa, eta ez bakarrik batzeko, ikasteko ere bai. Perretxikoak batzeko zaletasuna etengabeko ikasketarekin osatu behar da. Ikasteko modurik onena? Lehiaketetan aurkeztea, horrela derrigorrez ikasi beharra daukazu, gehiago saiatzen zara konkurtsoetan bariedade asko eta ondo sailkatuta aurkeztu behar izaten baita. Bestalde, liburuak irakurtzea ikasteko modu erreza da. Hortik hasita, lagunekin perretxikotara joanez asko ikasten da. Eta ikasi esaten denean perretxiko onak bakarrik ez, txarrak ere ezagutu behar dira.

- Zenbat espezie daude? Zeintzuk dira perretxiko preziatuenak?

- Europan 3.000 espezie inguru ezagutuko dira eta Euskal Herrian, berriz, Aranzadi Zientzia Elkartek 1.500-2.000 inguru sailkatuta izango ditu. Inguruko zelaietan, pinudietan, pagoa, haritza edota gaztainondoa dagoen lekuetan... leku guztietan irtetzen da eta erraz topatu daitezke. Preziatuenak susa, onddoa, gibeldurdina, niskalooa, saltsaperretxikoa edota pardilla (batez ere Araban) dira eta arriskutsuak, berriz, Entoloma lividum edota Amanita phalloides (txarrrena eta batzuetan heriotza dakarrena).

- Zein da perretxikoak biltzeko sasoi eta ordurik onena?

- Urte guztian egoten da baina orain beste sasoi batzuetan baino gehiago irtetzen da. Lehiaketak ere orain izaten dira bariedade eta kantitate gehiago dagoelako. Bestalde, ez dago ordu zehatzik gauzez zein egunez perretxikuak berdinduz irtetzen direlako. Ez dute, beste landareekin gertatzen den bezala, eguzkiaren menpekotasunik. Onena, lehena heltzea izaten da.

- Perretxikotarako zaletasunak gora ala behera egin du?

- Nere ustez afizioa asko zabaldu da. Lehen le-



LUIS EZENARRO

(Pol-Poleko Mikologia sailekoa)

hiaketetara joateko ohitura handia zegoen gauza berria zelako baina orain perretxikoak batzen jende gehiago izaten da. Jendeak asko ikasi du perretxikoen inguruan eta horrek konfiantza handiagoa eman dio perretxikoak batu eta jateko ere bai.

- Perretxikoen zein plater gomendatuko zeniguke?

- Perretxikoekin edozein plater mila modutan gertatu daitezke: osorik, saltsetarako, tortilak egi-

teko... Bi aukeratzearren korosua (txapan edo labean gertatutako gibeldurdin mota bat) eta "bolanieve" izeneko txanpinoa (tortiletarako edo gisauari botatzeko oso aproposa) aipatuko nituzke. Baina onddo, susa edota niskalooarekin ere oso plater goxoak gertatu daitezke. Bakoitzak bere gustoak dauzka eta ezin daitezke hau edo bestea hobekak direnik esan. Trufa ere adibidez oso ona da baina goi mailako sukaldaritzan erabiltzen da bakarrik eta hemen ez da batzen. Pirineoan eta Kataluan ohitura gehiago dago, baina oso garestia da eta ez da asko egoten. Hemen ia ez da topatzen.

- Gomendiorik?

- Bai. Batzuetan jendeak perretxikoak ekartzen ditu onak ala txarrak diren esateko baina 3 edo 4 muestra bakarrik erakusten ditu. Baina garantiak izateko onena batutako guztiak ikustea da mestraren antzekoak diren perretxiko arriskutsuak egon daitezkeelako tartean.

"Perretxikoak urte guztian zehar izaten dira, baina sasoi honetan kantitate eta bariedade gehiago"



Euskal Herrian 1.500 perretxiko espezie inguru zenbatu ditu Aranzadi Zientzia Elkartek.

Euskara galtzaile

Aldaketarik ezean UNEDeko EKD desagertzean



laz UNEDen 2.200 bat ikasle matrikulatu ziren, 500 inguru Euskal Kultur Departamentukoak. Hala ere, birmoldaketa aurrirakusten da UNEDen.

UNEDeko patronatuak bideragarritasun plan bati jarraituz, berregituraketa bati ekingo dio: lehenengo eta berehalako urratsa EKD, Euskal Kultur Departamentua kentzea da, gero 33 langileko kopurua 12ra murrizteko asmoa dago.

Bergarako Udalak, Diputazioak eta Kutxak osatzen duten UNEDeko Patronatuak duela 3 urte inguru Peat Marwick auditoria etxeari ikerketa sakon bat egiteko eskatu zion. Lehenengo ikerketaren ondorioék diotenez zentroa potentziatu beharra dago,

karrerek bere horretan jarraituz eta ikasketa ez arautuak bultzatuz. EKDri dagokionez, euskara bultzatu behar dela dio, literatur lehiaketak deituz, euskal filologiako masterrak sortuz, e.a.

94ko urrian Patronatuak Peat Marwicken 2. txostena jaso zuen. Bertan

presupostua murrizteko helburuari jarraituz, besteak beste, EKD kentzeko aipamena egiten da.

Aurtengo ekainaren 29an Patronatua berriz bildu, Peat Marwicken azken dokumentua mahai gainean jarri eta UNEDA berregituratuko duen plana onartu du. Horretarako lehenengo eta berehalako urratsa EKD kentzea da (4 irakasle finko eta administraria) eta jarraian, beste sailetako langile kopurua 21ean murriztea da, hau da, 33 langiletik 12ra jeistea. Erabakia legegintzaldia bukatzeko egun gutxi falta zirela Pa-

tronatuko ordezkari hauek hartu zuten: Victoria Gallastegi Bergarako alkateak, Eli Galdos diputatu nagusiak, Maria Jesus Aranburu Kultura diputatuak eta Kutxako Jesus Mari Alkainek. Legegintzaldi berriak Patronatuan bi aldaketa ekarri ditu eta gaur egun, V. Gallastegi eta Jesus Mari Alkainez gain Roman Sdupe diputatu nagusiak eta Koruko Aizarna Kultura diputatuak osatzen dute Patronatua.

Erabaki unilaterala

Erabakia, ordea, ez zuten guztiek onartu. Juan-

txo Madariagak, 90etik UNEDeko zuzendari izan denak, dokumentua eza-gutu orduko kontrako botua eman eta dimisioa aurkeztu zuen: "Politikok bartutako erabakia izan da; Patronatuak zentroko inorekin ez du hitzegin, langileak ez dira aintzat hartu. Birmoldaketa egin beharra badago, egingo da, baina behar bezala, hitzeginez eta negoziatuz, ez batabatean langileak kanpora botaz. Errezena langileak botatzea da. Gauzak ezin dira horrela egin".

Fernando Lasa idazkaria ere dimititzekotan egon zen baina azkenean bere karguan jarraitu du. Zentroko langileak kexu dira oraindik Patronatuarekin ez dutelako hitzegin: "Guri pertsonalki oraindik ez digute ezer esan. Behin eta berriz saiatu gara Patronatuko ordezkariekin hitzeginen baina alferrik izan da".

Arrazoi ekonomikoak

Patronatuak EKD ixteko eta irakasleak gutxitzeko eman dituen arrazoietakoa bat ekonomikoa da. Gaur egun UNEDek 210 milioiko presupostua du; Hasieran Patronatokide gehiago baziren ere gaur egun diputazio (80 milioi), Kutxa (32,5), Udala (10) eta Euskadiko Kutxa (5) dira. Alkateak birmoldaketa beharrez-

koa dela adierazi du: "140 milioiko defizita dago. Hasieran Patronatuan gehiago zeuden; orain, biru gaude eta bakoitzak eman beharreko kopurua bandiagooa da. Gainera Peat Marwicken lanean garbi geratu da EKDK eskaintzen dituen zerbitzuak beste zentru batzuek betetzen dituztela eta ez dagoela bere beharrik".

Madariagak dioenez ez dago 140 milioiko defizita, 13 milioikoa baizik. "Kutxa, Diputazioa eta Udalak nabiz etadiru aportazioa egiteko portzentzia bat izan, duela bi urtetik diru kopurua konjelatuta dute, ez dute igoerarik ordaindu. Eus-

kadiko Kutzak irtetzea erabakita du eta duela 3 urtetik kopurua jeisten ari da. Beraz, Patronatukide baten aportazioa jeitsi egin da, besteek diru kopurua konjelatuta dute eta zentroaren gastuak igo egin dira. Hone-la, 13 milioiko defizita aterata da, baina Patronatook egin beharko dio aurre, duela 20 urte sinatutako konpromezua du eta".


Bestalde, Juantxo Madariagak dioenez UNED merkea eta errentagarria da, "EHUren presupostua 30.000 milioikoa da eta UNEDek 200 milioikoa du". Bataz beste EHUKo ikasle bat milioi erdi kos-

tatzen da, UNEDekoa, berriz, 87.000. EKDK 20 milioiko presupostua du, UNEDek duenaren %10, eta 7 milioi matrikulazio bidez lortzen du.

Zerbitzuen duplikazioa

"Gaur egun ez dago euskara departamentuaren beharrik, ikasketa horiek egiteko aukera beste zenbait zentruk ematen baitute", horixe da Patronatuaren izenean alkateak EKD ixteko ematen duen beste arrazoa. EKDKo J.M. Elexpuru eta Jerardo Elortza ez datoz bat honekin: "gure langintza garrantzitsuena EGAtik gorako irakaskuntza da.

EKD kentzeko erabakia hartuta egon arren, EGA, Sakontze maila eta Ikertze maila egiteko matrikula epea zabalik dago.



"Patronatoaren erabakiak izango du eraginik. Irailean tabernari eta merkatari askok galdetu dute ikastaroak noiz hasi behar diren" Fernando Lasa

CAMACHO

Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta, 24 BERGARA
☎ 76 13 35



Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA



Gaur egun Euskal Kultur Departamentuan 5 langile finko daude. Argazkian, Jerardo Elortza.

Euskara maila apala izan eta bere burua jantzi nahi duenarentzat dago EKD. Guk egiten dugun eskaintza oso leku gutxitan egiten da, beraz ez dago duplikaziorik. Aurten esaterako, EGaz gain Sakontze Maila eta ikastaro berri bat emango dugu, Ikertze Maila. Gabon osterako beste ikastaro batzuk ateratzeko asmoa dugu (Itzulketak eta idazketa ikastaroa, e.a.) baina horren berri bere egunean emango dugu".

J. Madariaga zuzendari ohiak buru-belarri defendatzen du Euskara Departamentua: "EKDk ikaragarritzko lana egin du, prestigio handiko departamentua da eta beste edozein departamentuk baino indar handiagoa izan du. Irakasleak goi mailako profesionalak dira eta ikasle askok ikasi du hemen, argitalpenak, ikerketak egin dira.... Orain matrikula pixka bat jeitsi da, baina euskararen inguruko ikasketetan oro bar gertatu den fenomeno da".

UNED desberdina

Bergarako UNED estatuko desberdina izan da sorreratik. Beste zentruetan ez da eskolarik ematen, ikasleak kontsultak egitera eta joaten dira, Bergarakoak, ordea, beste era batera funtzionatzen du: eskolak ematen dira, departamentuak (Historia, Euskara...) daude, ikasketak ez arautuak ematen dira (masterrak, ikastaroak, e.a.)... UNEDeko langileen ustez, hartu den erabakiarekin garbi ikusten da Patronatuaren helburua Bergaran estatuko UNED-ek duten egituraketa sartzea dela. "Irakasle finkoak gutxitu eta kolaboratzaileen bidez funtzionatu nahi da; honela ez litzateke eskolarik egongo, gastuak nabarmen jeitsiko lirake eta Bergarako UNED bulego arrunt bat izango litzateke"

Patronatuak ere UNED desberdinaren aldeko apostuarekin jarraitzen du. Victoriano Gallastegik dioenez, "nik UNED beti defendatu dut eta orain ere horretan dibardut. Gainera Patronatuaren asmoa UNED desberdina izatea da, potentziatua, baina ez orain ematen den guztiarekin, hala balitz ez litzateke berregituraketa beharrik egongo eta aldatetak egon behar dira, zerbait egin beharra dago"

Bergaran izango duen eragina

Alkatearen ustez hartu den erabakiak Bergarari ez dio eragingo: "EKD kentzeagatik UNEDA ez da itxiko eta jendea etorririko da, euskarako eskolara ez, baina jendeak etortzen jarraituko du". EKDko langileak, ordea,

ez daude honekin ados: "UNED zentro arrunt bihurtzen bada, herriarentzat desastrea izango da. Zapatuetan sekulako jende mugimendua egoten da eta merkatariek, tabernek... nabaritzen dute. Herrian beste giro bat, bizitasun bat ikusten da".

Zer gertatuko ote da?

"Erabakia hartuta dago eta EKD kendu egingo da", hala dio Victoriano Gallastegik. "Ez dakigu nola gauzatuko den. Lehenengo zuzendari berria izendatuko da, eta zuzendari horren bidez eta talde baten bidez birmoldaketa gauzatuko da. Nola? Noraino iritsiko den? Oraindik ez dakigu. Langileak, normala den bezala, arduratuta daude baina beraiekin hitz egingo dugu, negoziatuko dugu. Garbi dago finko dauden langile horiek ez direla kalera joango, gure helburua adostasun batean abalik eta konponbiderik onena ematea da".

EKDko langileek ez dute etsitzen eta neurriak gauzatuko ez direlako esperantzaz, normaltasun osoz jarraitu eta matrikulazioa ireki dute. "Gaizki hartutako erabakia ez dago zertan obediturik. Gainera datorren urtean UNEDen egongo ez garen zertifikaziorik ez dugu jaso, beraz, gure lehenengo ikasleak direnez matrikulaketak nabatazkoak dira eta matrikulazioa zabaldu egin dugu".

"Finko dauden langileak ez dira kalera joango. Gure helburua adostasun batean konponbiderik onena topatzea da" Victoriano Gallastegi

Ez dugu inor engainatu nahi eta komunikabideetan eman dugu arazoa- ren berri".

Une latz honetan Euskara Departamentuak dei bat egin du: "dagokionari eskatzen diogu gure iragan onari etorkizun hobea ziurta diezaiola, eta aldi berean gure ikasle eta irakasle diren, izan diren eta izango direnei, eta oro bar euskaltzale guztiei beren bultzada eta animoa".

Euskal Kultur Departamentuaren alde

Dagoeneko hasi dira euskaltzaleak EKDren arazoaren berri ematen eta departamentuari bere elkartasuna adierazten. Honela, Deba Garaiko euskara elkartearen elkar-goak, Debagunek, bultzatuta, agiri bat zabalduko da euskaltegietan, euska-

ra elkarteetan, euskara zerbitzuetan eta herri komunikabideetan bertan dihardutenen sinadurak biltzeko. Debaguneraren agiriak, besteak beste, dio azken 19 urteotan lan handia egin duen eta egiten ari den departamentuaren helburuekin bat datorrela eta EKDren lana ohiko euskaltegien lanaren osagarri dela. Sinadurak bildutakoan Patronatuko ordezkariari bidaliko zaizkie. Aurrerantzean Debagunek, besteak beste prentsaurreko bat emateko asmoa azaldu du.

Kultura diputatuak adierazpenik ez

Koruko Aizarna kultura diputatuaren iritzia jakin nahian hamaikatxo ahalegin egin ditugu berarekin harremanetan jartzten, baina azkenean esan digu ez duela inolako adierazpenik egingo.

Bergarako udaleko partidu desberdinetako ordezkariak (EA eta PSE-EE) EKDren eta UNEDen arazoaren aurrean zein jarrerara duten jaso nahi izan arren, oraindik gaia ez dutela tratatu azaldu digute. HB izan da erantzun digun bakarra. Herri Batasunak dio "ez dagoela onartzerik balako zerbitzua eskeintzen duen unibertsitatea abultzea, 'euli kaka' baino ez diren

gastoei errua boteaz. Bergararrontzat ez ezik, inguruko herritar eta azken batean Euskal Herri osoarentzako goi mailako euskal kultur erreferentzia gune eta dinamizatzailerik delako. Erabaki honetan partaide direnak, Bergarako alkatea tarteko, salatzeaz gain, erabakia atzera bota eta Bergarako UNED indartuta ateratzeko abalegin guztiak egingo ditugu".

"UNEDek eskoletan normaltasun osoa garantizatzen du; presupostu eta lan arazo bat da"

Diru kontuak

kopuruak gutxi gorabeherakoak dira

- EHUk 30.000.000 milioiko presupostua du.
- UNEDek 210 milioikoa.
- Patronatuak 140 milioi ematen ditu.
- Foru Aldundiak 80 milioi jartzen du.
- Kutzak 32,5 milioi.
- Euskadiko Kutzak 5 milioi.
- Bergarako Udalak 10 milioi.
- EHUko ikasle bat 500.000 pezeta kostatzen da.
- UNEDekoa 87.000 pezeta.
- EKDK 20 milioiko presupostua du.
- EKDK 7 milioi matrikulen bidez ateratzen du.

3. adinekoentzako laguntza



GRADUAZIOA DOHAIN

MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA

BERGARA ARRASATE ORDIZIA

MULTIOPTICAS EIBAR

Bidebarrieta 2 - EIBAR - ☎. 100522

Prezio paregabeak

3. adinekoa bazaitugu eta, zure betaurreko zaharren ordezkari modako beste batzuk erabili nahi baduzu, poltsikoari astindurik eman gabe, oraintxe duzu MultiOpticas J. Larrañaga-n eskaintza paregabe bat.

BETAURREKOAK + KRISTAL GRADUATU EZINHOBEEK 6.900 pta.

BIFOKODUN BETAURREKOAK 9.900 pta.

MULTIOPTICAS-en GARANTIAREKIN. ETA ORDAINTZEKO ORDUAN, ABANTAILA UGARI

URREZKO ERLOJU 1en ZOZKETA



Informa zaituz

Perretxiko bila joateko ohiturarik ba al daukazu?




Pedro Azpiri
64 urte, langilea

Askotan ez, hilean pare bat bider gutxigorabehera joaten naiz. Batez ere ondoak eta pinutelak batzen ditut.



Clara Azkarate
29 urte, langilea

Ez, gainera ezin naiz astebukaeretan joan, ezinezkoa zait. Nahiago dut, aukera daukadanean, gertatu eta jatea.




Ignacio Gallastegi
38 urte, langilea

Aspaldian ez. Lehen asko joaten nintzen baina orain... Batzeko orduan gibelurdina eta ondoak gustatzen zaizkit batipat.



Maria Gutiérrez
34 urte, langilea

Ni ez baina nere gizonak bai. Astebarruan joaten da eta nik ezin dut baina jateko oso onak dira, txanpinoiak eta ondoak batez ere.



Jose Luis Kapanaga
66 urte, jubilatua

Gehiegi ez, baina noizean behin joan izan naiz, mendia betidanik gustatu izan zait eta. Gehien gustatzen zaidana pinutela da.



Mari Sol Díaz
60 urte, jubilatua

Ni sekula ez baina nere gizona askotan. Harek ekartzen dituenean asko gustatzen zait, oso onak egoten dira eta.

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi ☎ 76 15 09

ONENA
TINTATEGIA
Barrenkale, 29 BERGARA

TOSHARE
☎ 76 29 70

ARRANO
 Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

YAZKI
UME GAZTE
Neska eta mutil
Irizar, 3 Ibargarai, 8
☎ 76 16 14 ☎ 76 54 73



Aldibaterako ondoeza

Jota ikaratuta nengoen. Norbait nire ohitura eta aisialdiari buruzko zurrumurru eta gezur iraingarriak zabaltzen hasia zen. Telebistan Zentzu Kritiko Gehiago talde klandestino bateko partaide ginen. Baina larriena izan da Telebistaren Aurkako Ekintzen Komitearen belarrietara ere iritsi zela kontua, eta nire bizilekuan baztertu nautela errehabilitazio audiobisualerako programa estu baten menpe. Orain, aditu talde batek nire nahasteaz epaia emateko zain nago. Egoera laburtzekotan, esango dizuet, irakurketarako zaletasuna izugarri piztuta nuela aspaldi honetan telebistako eskaintzari esker. Nire "hobby" insolidario horren bidez ihes egiten nion gauero audientzia indizeari, eta besteek lo egiten zuten bitartean prentsan edo literatura garaikidean zein klasikoan babesten nintzen.

Degradazioaren mailarik gorena iritsirik, nire burua bere kabuz pentsatzen hasia zen eta baita publikoaren Gustu Txar eta Akribitate Pasibo eta Oro-onartzailearekin bat ez zetozen ekimenak hartzen ere. Nere atsekaberako, ez nuen konpartitzen milioika telebista-ikuslek, inoren atsekabeak telebistako ikuskizun bihurtu ondoren, desgraziok elkarbanatzeko zuten zaletasuna. Egia esan, momentu batzuetan saiatzen nintzen eta nire ondokoei sinistarazten nien programazioaz gozatzen nuela, gehienbat nire-ganako susmo txar gehiegirik ez sortarazteko; hala ere, beti daude nire barruak jasan ezin dituen irainak. Adibidez, zuen ustez ez al da iraingarria herri honetako telebistetan futbolari eskaintzen zaion toki eskasa? Kontua da, nirea bezalako portaerek eredu vegetatiboak eskaintzen zizkietela gazte eta gaztetxoei. Zorionez, gaur egun, Komitearen babesarekin, nire desbideraketa zuzendu eta Aldea Globaleko kide naizenez nigandik espero duten bezala jokatzeko hasia naiz: famatuen gorabeherak jarraitzen ditut, karaoke abestiak murmuriatzen ditut eta Alvarez Cascosi txantxekin barre egiten diot. Nere onera bueltatzen ari naiz.

Emilio VINUESA



Zorionak zinema!!

Zinemaren lehen emanaldi publikoa Parisen izan zen 1895eko abenduaren 28an. Filmean tren bat geltokira heltzen ikusten zen eta momentu horretan ikuslegoa bildurturik antxintxiketan hasi eta berehala zinematik ihes egin zuen. Japoniar zinema aipatzerakoan jendeak Pariseko ikuslegoak baino korrika arinagoa egiten duela jakin arren, bere mendeurrenean arte honen garrantzia aldarrikatu nahi dut lasujiro Ozuren "Tokyoko istorioak" erabili az.

Astelehenean Garcik telebistan eskeinitako filma berezia da: lasaiagoa, geldoagoa, Ozuk kamara ia ia ez du mugitzen, japoniarren etxeak eta ohiturak desberdinak dira, baina pazientzia pixka bat edukiz gero, ziur naiz jende askok gustora ikusi ahal izango zuela filma.

Ozuk, bere denbora hartuaz, oso ondo aztertzen digu familietan sortzen diren gatazkak eta desberdintasunak: belaunaldi desberdinen ikuspuntuak, bizi modernoak pertsonen arteko harremanetan ezartzen dituen oztopoak, gurasoen bazterteza, pertsonen berekoikeria, e.a.

Zirrara handia sentituz, azkenean konturatzen gara kontatuko dena argi eta garbi heldu zaigula. Sentitutako zirrarak zinemaren haunditasuna eta komunikatzeko duen ahalmena frogatzen du eta oso garrantzitsua den beste gauza bat: gaur egun askotan ahaztu egiten bazaigu ere, mundu osoko gizakiek elkarrenganako dugun zerikusia uste dugun baino askoz haundiagoa dela. Zorionak zinema!!

Antonio ZABALA

KONDE



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

POL-POL

Taberna

☎ 76 07 78



DEBA

GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 beheka ☎ 76 21 80-76 06 37

Deco-Textil

ZANGITU


Etixerako lentzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

LAKET

gizon emakume

Barrenkale, 35 BERGARA



Elorregiko Aforo Estazioa uda ostean jarri zen martxan.

■ **Aforo estazioa**

Diputazioak **San Prudentzion** egin duen Aforo Estazioa martxan da dagoeneko. Estazioari esker Deba ibaiaren errekurtsioak hobeto ezagutu ahal izango dira, ubidea kontrolatzeaz gain, uraren kalitatearen inguruko informazioa jakin izango baita. Ubideari buruzko datuak hilero hartzen dira Gipuzkoako datu hidrologikoen kontrol zehatza eramateko. Uraren kaliteateri dagokionez, temperatura, pHa, amonioa edota urak daraman materia organikoa neurtzen dira. Guzti honek depuraziorako eraiki nahi den estrukturaren justifikazioa erraztuko du.

■ **Inausketa garaia**

Urte sasoi honetan ohikoa denez, udal langileek zuhaitzen inausketari ekin diote. Dagoeneko **Irizar ibilbidea, Toki-Eder, Ibargarai** eta **Igerilekuetako** zuhaitzei podaketa egin zaie eta hurrengo egunetan, berriz, Boni Laskurainen, Zubiaurren, Goiko Plazan eta Osintxun izango dira lanean udal langileak. Urtero egiten da inausketa aipatutako tokietan eta Espoloko zuhaitzei, berriz, datorren urtean helduko zaie txanda.



Udal langileak kaleko arboletan inausketa egiten ari dira egun hauetan.



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

Zumelaga

JATETXEA

**EZKONTZAK, DESPEDIDAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, MENU BEREZIAK...**

**etorri eta
geldetu!!**

Pepelu

Ilepaindegia

Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
BERGARA



■ **Auzo alkate aldaketa**

Igande goizean, San Migel jaien barruan, Angiozarko auzo alkatearen aldaketa egin zen. Zortzi urtez auzo alkate izan den **Jose Angel Mikeok** testigua pasa zion **Gorka Elorza** alkate berriari. Meza ostean, jende dexente bildu zen San Migel parrokiaren elizpean eta, Angiozar

Bailarako Batzarreko akta irakurri ondoren, herriko papelak, zigilua eta makila jaso zituen Elorzak. Jarraian emandako luncheon Elorzak bere auzokideen lehen eskakizunak ezagutzeko aukera izan zuen. Ea ba!!

■ **Euskaltegi berria**



Aurreko ostiralean inauguratu zen **Akulu AEK euskaltegia** Masterreka 13an. Hainbat berrikuntza egin ondoren, euskaltegiak 4 gela, komunak eta idazkaritzarako bulego bat izango ditu. Bertan, EGAKo klaseak

emateaz gain, Mintza Taldea eta Gazte Taldea osatuko dira. Argibideak 76 05 18 telefonoan jaso daitezke. Ostiraleko inaugurazioan, bertso saio labur baten ondoren, bildutakoei lunch bat banatu zitzaion. Guztiek euskaltegiak izandako berrikuntzak goraiatu zituzten.

Zertan dihardute ba?



Arantzazu Loidi

jatorri bergararra duen 28 urteko atxabaltarra Udaleko Euskara Zerbitzuko Itzultzaile laguntzaile berria da pasa den irailetik. Lanpostua eskuratzeko asmoz 16 bat lagun aurkeztu ziren eta proba ezberdinak gainditu ondoren Arantzazuk eskuratu du lanpostua datozen 3 urtetarako eta udaletxeko testuak, dokumentazioa edota kanporako testuak itzuliko ditu. Arantzazu Loidi Informazio Zientzietan lizentziatua da Leioako Fakultatean eta, horrez gain, Itzulpen ikasketak egin zituen Gasteizeko Itzultzaile Eskolan, IVAPen. Arantzazu Loidi 1992eko urtarriletik pasa den urtarrilera bitartean Arrasateko Arrasate Press astekariko zuzendaria izan zen.

Usoa Pub

☎ 76 38 57
Irala, 1

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

Rosarito Larrañaga

Rosarito Larrañaga (63 urte) 15 urterekin hasi zen Larrañaga Gozotegian lanean. Beti ere mostradorean, bergararren bizitza gozotzea da bere lana.

- Gozozalea zara?
- Bai.
- Tostoiak ala errellenoak?
- Tostoiak nahiago.
- Gozokiak ala bonboiak?
- Bonboiak, duda barik.
- Zer saltzen duzue gehien?
- Pastelak.
- Eta zein da preziatuena?
- Relanpagoa.
- Jaiegunetan zer egiten duzu?
- Gasteizera joan, Goiko Estazioetik pasiatu...
- Hobby bat?
- Irakurtzea.
- Idazle bat.
- Antonio Gala.
- Nolako musika atsegin zaizu?
- Klasikoa.
- Zein ordutan jeikitzen zara?
- 7etan.
- Eta oheratu?
- 11ak aldera.
- Zenbat ordu telebista egunean?
- Pare bat.



"Nahiko gozozalea naiz. Denbora librean irakurri, pasiatu edota Gasteizera joatea gustatzen zait. Musika klasikoa dut gustokoena eta telebista ez dut asko ikusten, egunean pare bat ordu. Bidaia bat egitekotan Londresera joango nintzateke"

- Gomendatu filme bat.
- "Lo que el viento se llevó".
- Animalia bat?
- Txakurra.
- Kolore bat?
- Azul marinoa.
- Janaririk gustokoena?
- Txipiroiak.
- Meriendarik egiten duzu?
- Ez.
- Karta joku bat?
- "Seisak", besterik ez dakit.
- Nora egingo zenuke bidaia bat?
- Londresera.
- Garraio publikoak erabiltzen dituzu?
- Bai, autobusa baina gaizki daude.
- Ilargira joango zinateke?
- Ez.
- Pertsonaia historiko bat?
- Alexander Fleming.
- Kirol bat aukeratzekotan?
- Futbola, aitarekin asko ikusten dut.
- Oroitzapen on bat?
- Gurasoen urrezko eztaiak, primeran pasatu genuen.
- Zertaz zaude asperturik?
- Euskal Herrian dagoen pake faltaz.
- Zerekin egiten duzu barre?
- Dendan, jendearekin tratuan.
- Txikitan zein iopuin zenuen gustoko?
- "Edurnezuri"
- Loteria tokatuz gero, zer?
- Ez dut jokatzten...

**PINTXO eta BOKADILLOAK
SEKULAKO MARTXA!!**

EUXEBIO II

Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92

EXUKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 51 62
BERGARA

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R.S.I. 209374 - 55
BERGARA

OILAGORRA

TABERNA

Barrenkale, 21 BERGARA

MAHER

Biltegiak L.E.

Oihal etxea

Bidekurutzeta, 29
☎ 76 22 90 - 76 26 75

ETXEBIZITZA

Pisua salgai Bidekurutzetan. 50 m2. Berriztuta. ☎ 71 53 49 (20.00-22.00).

Estudio txikia alokatuko genuke. ☎ 76 25 81.

Garaje bat alokatzen da. ☎ 76 55 50.

Pisua erosiko nuke Bergaran. ☎ 76 29 95.

Garajea alokatzen da Kruz Gallastegin. ☎ 76 49 87.

Etxea salgai Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

Garajea salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 27 39.

Garajea salgai prezio onean. ☎ 76 03 70.

Pisu edo ganbara bat alokatuko nuke. ☎ 76 47 85.

Pisua salgai Koldo Eleizalde 18an. ☎ 76 31 57.

Etxea salgai Osintxun. ☎ 76 28 70.

Pisua alokatzen da Koldo Eleizalden. ☎ 76 25 20.

Garajea alokatzen da Masterrekan. ☎ 76 45 10.

Pisua salgai Ion XXIII enparantzan. ☎ 76 27 80.

Pisua salgai Zabalotegi dorrean. ☎ 76 27 80.

DENETARIK

Pisua konpartituko nuke Bergaran. ☎ 76 38 32.

Fiat Tipo (16 balbula) kotxea salgai. SS-AH matrikula. ☎ 76 06 69.

Karrerazko bizikleta salgai. Prezio interesgarria. ☎ 76 60 69.

Kawasaki KX 125 motorra salgai. ☎ 76 25 50.

Mendiko bizikleta salgai. ☎ 76 15 76 (Xabi).

Tosai kerosenozko estufa berria salgai. ☎ 76 07 61 (eguerdian).

Bost katukuma (siamesak) eta indioilarra salgai. ☎ 76 64 65.

Haurrendako mendi bizikleta (kanbioekin) salgai. ☎ 76 29 95.

Beasainera (7.15-7.45etan) joateko kotxea behar dut. ☎ 76 03 20 (Elena).

Ume txiki baten eraztuna (selloduna) topatu dut. ☎ 76 35 15.

Taberna bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 53 80 (Maria Jesus).

Katukuma siamesa (marroi argia) galdu dut. ☎ 76 44 22.

Opel Corsa kotxea, mendiko bizikleta, radiokasetta, sofa ohea eta bi butakak salgai. ☎ 76 07 87.

LANA

Aleman klaseak ematen dira. ☎ 76 12 77 (Maite).

OHOko klaseak ematen dira. ☎ 76 11 89 (Enmanuel).

Matematika, fisika eta kimikako klaseak. ☎ 76 44 34.

Aleman diplomatuak klaseak emango lituzke. ☎ 76 04 93 (Idoia).

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Etxeak garbitu edo haurrak zaintzen ditut. ☎ 76 10 00.

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Gutxitu psikikoen hezitzaile batek gutxituak, zaharrak edo haurrak zaintzeko lituzke. ☎ 76 52 08.

OHOko klaseak ematen dira. ☎ 76 21 00 (Iñigo).

Mutil bat behar da arratsaldetan eta zapatutan dependiente bezala lan egiteko. ☎ 76 04 43.

Espesientziadun neska batek ingeles klaseak ematen ditu. ☎ 76 28 16.

Matematika eta zientziatako klaseak. ☎ 76 31 31 (Juanma)/ 76 45 80 (Andoni). Barrenkale 13, 3.a.

Ingeles Filolojia duen neska batek lan egingo luke. ☎ 76 40 63 (Manoli).

Ingenieritza ikasten diharduen mutil batek OHO, BBB eta UBiko partikularrak ematen ditu. ☎ 76 53 88 (Pedro).

Matematika, zientziak eta diedriko klaseak (UBIra arte). ☎ 76 24 31 (Eneko).

IKUSI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irizar, 2 ☎ 76 53 09

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

BEHEKO TABERNA

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

iletxo


ileapaindegi mistoa

BEGOÑA ARZELUS

Fleming Doktorea, 7 BERGARA
☎ 76 53 15

AGIRREBEÑA
oinetakoak
arropa denda
lenzeria

Urteaga, 5 ☎ 76 18 29



"Artelekun, Arte Ederretako fakultatean, Madrilen edota New Yorken zer egiten den jakiten saiatzen naiz"

"Pinturari dagokionez Bergara bezalako herririk ez dago. Tendentzia guztietako pintoreak ditugu"

JUAN JOSE ALTUNA, PINTOREA

"Minimalismoaren ildotik jo dut; bide zailena, baina aberasgarriena niretzat"


Juan Jose Altuna (52 urte) arrasatearra aita-gatik hasi zen txikitatik pintatzen. Bergarara bizitzera etorri zenean, orain dela 25 urte inguru, harrিতuta geratu zen herriko pintura mobidarekin. Azkenaldian egindako lanak Donostiako Olaetxea galerian erakusten ditu.

- Nola sortu zitzazun Donostiako Olaetxea galerian erakusteko aukera?

- Donostian hiru galeria daude pintura garaikidearen inguruan ari direnak: Altxerri, Galeria 16 eta Olaetxea. Azken hauekin harremanetan jarri nintzen. Galeria berri samarra da. Nire lana erakutsi nien, lan nola egiten nuen ikustera etorri ziren eta aurrera.

- Ze motatako koadroak erakusten dituzu?

- 20 koadro dira, batzuk txikiak (40 x 40 z.m.koak) eta beste batzuk haundiagoak (170 x 0.75 z.m.). Azken aldiaren egindako lanaren fruitua da. Aurreko erakusketan espresionismo geometrikoa lantzen nuen baina beti ere figuratiboa laga



Altunak Donostiako Olaetxea galerian erakusten du hilaren 24ra arte.

barik. Oraingo honetan, ostera, minimalismo aldera jo dut. Gaur egungo gizartearekin zerikusi haundia du. Gero collageak edota figurak ere badaude, baina beti ere minimalaren tendentzian.

- Eta materialen aldetik?

- Teknika mistoak erabiltzen ditut. Papera, ohiala, egurra..., guztiak erabiltzen ditut soportea bezala. Bertan ikusi dadila materialaren pertsonalitatea. Margotzeko, akrilikoak, oleoak...

"Azken erakusketan espresionismo geometrikoa lantzen nuen, baina beti ere figuratiboa laga barik. Oraingo honetan, ostera, minimalismotik jo dut"

- Gaur egungo tendentzien artean non kokatzen duzu zeure burua, zure obra?

- Herri batean bizirik arren, Bilbon, Madrilen, New Yorken, Artelekun edota Arte Ederretako fakultatean zer egiten den jakiten saiatzen naiz. Arco ikustera joatea asko gustatzen zait, normalean azken nobedadeak bertan agertzen direlako.

Nire ustez bi tendentzia nagusi daude hemen. Alde batetik paisaiak egitea, inpresionismo edo espresionismo inguruaren aritzea, baina honek ez nau betetzen eta beste ildo batetik joan nahi izan dut, minimalismoaren bideetik. Beharbada bide zailagoa, baina aberasgarriagoa niretzat.

- Eta Bergaran?

- Pinturari dagokionez Bergara bezalako herririk ez dago. Tendentzia guztietako pintoreak ditugu eta maila onekoak.

- Zer deritzozu BERTI buruz?

- Lehen Bergarako eskolari buruz asko jarduten zen, baina zer da herri? Herriko artisten elkarrearen bidez, Bergarako eskola zer den finkatu eta bultzatu ahal izango da.

Futbito txapelketa asteburu honetatik aurrera Kiroldegian

Labegaraietako futbito txapelketa larunbat honetan hasiko da, 47 taldetan banatuta 500 jokalaritari inguru arituko direlarik. Aldaketa dexente ekarriko dituen txapelketa izango da aurtengoa.

Alde batetik, antolatzaileek Lagunak Areto Futbol Elkartea sortu dute eta bestetik joku arauak ere aldaketa batzuk agertzen dituzte. Joan zen urtean eskubaloia eta saskibaloia federatuek ezin bazuten jokatu aurten zilegi izango dute jokatzeko. Arbitroek, bestalde, arreta gehiago jarri beharko dute jokoan antolatzaileek arau berriak sartu dituzte eta. Iaz 6 falta egiten zuten taldeak ezin zuen

hesirik jarri eta aurten hori mantendu egiten da. Baina falta atetik 12 metro baino gehiagora egiten bada, falta porteriatik 12 metrora dagoen penaltiko bikoitzetik jaurtiko da.

Alboko eta kornereko sakeak bi eskuekin egin beharko dira eta jokalaritari bat bi aldiz kanporatua izaten bada, bere taldeak ezin izango du beste jokalaritari bategatik

"4 multzotan banatutako 47 talde arituko dira lehian; 500 jokalaritari gora"

ordezkatu. Gainera talde bat bi partidutara joaten ez bada txapelketatik kanporatua izango da eta partidua jokatu ahal izateko derrigorrez 4 jokalaritari izan beharko ditu talde bakoitzak.

Partidua orduz aldatu edo beste egun baterako jarri nahi duen taldeak asteazkena baino lehen adierazi beharko die antolatzaileei. Azkenik, partiduen ordutegiak ez dira BKEko bulegoetan jarriko, aurreko urteetan egin den bezala, herriko hainbat tabernatan izango dira ikusgai eta jokatu ahal izateko derrigorrezkoa izango da jokalaritari bakoitzak bere karnet neurriko argazkia aurkeztea.

PARTIDUAK

■ LARUNBATA

◆ Barruan

09.00: F.A.C.- Pata Negra
Arbitroa: **Xurruapak**
10.00: Xurruapak-Aldoka M.
Arbitroa: **Pata Negra**
11.00: Osintxu-Patxaran Team
Arbitroa: **Aldoka Maldoka**

◆ Kanpoan

09.00: A Ze Flaxa-Autoberezi
Arbitroa: **Nekrofilikos**
10.00: Shaktale-Nekrofilikos
Arbitroa: **A Ze Flaxa**
11.00: Eri-Uve Bikoitza
Arbitroa: **Shaktale**

■ IGANDEA

◆ Barruan

09.00: Bergatrans-Madura
Arbitroa: **Angiozar**
10.00: Angiozar-Bildurbarek
Arbitroa: **Madura Ind. Gol**
11.00: Bar Canalejas-Ozaeta
Arbitroa: **Bildurbarek OPEL/LAM**
12.00: Ogizun-Arloteak
Arbitroa: **Bar Canalejas**
13.00: Mongatxurra-Ufala
Arbitroa: **Arloteak**
16.00: Errotagain-Kabia
Arbitroa: **OH Zerezos**
17.00: Haltzari-OH Zerezos
Arbitroa: **Kabia**
18.00: Indar Gorri-Pagomendi
Arbitroa: **Haltzari**
19.00: Nahikari Hooligans-Etxagi
Arbitroa: **Pagomendi**

◆ Kanpoan

09.00: Matxakategi-Txipiron
Arbitroa: **Igandekoak**
10.00: Igandekoak-Ezinleike
Arbitroa: **Txipiron**
11.00: C. Bergara-Soropotroak
Arbitroa: **Ezinleike**
12.00: Moskis-Kirolzaleak
Arbitroa: **Soropotroak**
13.00: Guadalest-P.J.S.
Arbitroa: **Kirolzaleak**
16.00: Ari Ari-La Juve
Arbitroa: **Amozkibar**
17.00: EH Biterrak-Amozkibar
Arbitroa: **Ari Ari**
18.00: Hartu Zamak-Kayak O.J.
Arbitroa: **EH Biterrak**

A MULTZOA

Errotagain
Bergatrans
Ogizun
Mongatxurra
Bar Canalejas
Angiozar
Kabia
Madura
Arloteak
Ufala
Ozaeta
Bildurbarek Opel/Lam

B MULTZOA

Haltzari
OH Zerezos
Indar Gorri
Nahikari Hooligans
A Ze Flaxa
Hartu Zamak
Pagomendi
Etxagi
Autoberezi
Os Jardineiros
Uve Bikoitza
Eri

C MULTZOA

EH Biterrak
Construc. Bergara
Moskis
Igandekoak
Ari Ari
Shaktale
Amozkibar
Soropotroak
Kirolzaleak
Ezinleike
La Juve
Nekrofilikos

D MULTZOA

Labegaraieta
Matxakategi
Guadalest
F.A.C.
Xurruapak
Txipiron
P.J.S.
Pata Negra
Aldoka Maldoka
Patxaran Team
Osintxu

Zure
konfidantzako
denda



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

Angiozarko trontzalariak goierritarrei nagusitu

Herri kiroletan Bergean aritzen diren kirolariak pixkanaka-pixkanaka desagertzen joan dira.

Duela 7 urte inguru Angiozarren trontzarekin aritzen ziren 3 bikote zebiltzan. Baina hainbat txapelketetan aritu ondoren utzi egin zioten. Halere, joan zen igandean, San Migeletan, Fernando Marzana eta Igor Agirrezabal gazteek Goierriko txapeldunei irabazi zieten.

Angiozartarrek 10 korte egiteko 7 minutu behar izan zuten eta orain Zegamako jaietan errebantxa egingo dute. *"Hilabete oso eman dugu entrenatzen eta igandeko proban nabiko ondo ibili ginen. Orain Zegamako jaietan errebantxa egingo dugu, baina gero ez dakigu jarraituko dugun. Trontzan aritzea oso gogorra da eta"* adierazi digute bi trontzalariak.

Kana erdiko pago enborrak mozten dituzte eta bikoteka aritu beharreko kirol honen zailtasunak zeintzuk diren galdetu diegu. *"Ematen du erraza dela, baina postura eta erritmoa oso garrantzitsuak dira. Trontza beti maila berdinean eramán behar da, bata bestea baino altuago eramaten badu, ez baita enborra mozten"*.

Entrenatzaile lanak Nikolas Agirrezabalek, Igorren aitak, egin ditu eta adierazi digunez duela 7 bat urte Angiozarko 3 bikote entrenatzen zituen eta



Fernando Marzana eta Igor Agirrezabal trontzalariak lan bikaina egin zuten joan zen domekan Angiozarren.

emaitza onak ere lortu zituzten.

Arabarren aurka finala

"Gaztetan arabarren aurka finala galdu genuen eta nagusiekin ere Euskadiko txapelketan emaitza onak lortu genituen. Baina gazteak laga egin zioten eta San Migeletarako nik aizkoran egin behar nuenez, lehen trontzan aritutakoak plazara atera nahi nituen. Azkenean berotu ziren eta hor daude emaitzak" dio Nikolas Agirrezabalek.

Trontzan aritzeko material ona edukitzea ezinbestekoa da eta angiozartarrek erabilitako trontzak suediarrek dira. *"Trontza onenak suediarrek dira eta horien bila ibili nintzen. Mendi-*

zabal aizkolariak esan zidan Iruñeko denda bateko almazenean trontza pila bat zegoela, 8 topatu nituen baina erdoilduta zeuden. Elgoibarren trontza zorroztaile bat zegoen eta hari eraman nizkion eta esan nion 'ondo ipintzen badizkidazu 3 trontza niretzat eta 5 zuretzat'. Trontza horiekin Euskadiko 4 txapelketa lortuta dituzte" diosku Agirrezabalek.

Marzana eta Agirrezabalek apostu gogorra dute larunbatean, izan ere Angiozarko bikote baten aurka 25.000 pzt. jokatu dituzte. *"Lagunarteko afari baten ostean berotu egin ginen eta aurkakoek 6 zati moztu behar dituzten bitartean, guk 10 moztu behar ditugu, ikusi behar zapatuan zer gertatzen den"*.

Aurtengo San Migeletako

jai egitarauan garrantzi handia hartu dute herri kirolek, trontzalariak ez ezik, harrijasotzaile eta aizkolariak ere izan baitira. Pato II eta Aitzeta harrijasotzen aritu ziren. Aierbe eta Agirrezabal aizkolarien arteko desafioa, berriz, Aierbek irabazi zuen. Agirrezabal angiozartarrak ezin izan zuen kanako enborra Aierbek baino lehen ebaki. Arrospide, Euskadiko txapelduna, berriz, Ugarteburu eta Laskuraini nagusitu zitzaizen. Azkenik, Marzana eta Agirrezabalek trontzan, Goierriko txapeldunak baino hobekak izan ziren. Astebukaera honetan, berriz, Angiozarko beste bikote baten kontra arituko dira.

FUTBOL PARTIDUAK

◆ Bergara-Lazkao

Preferente maila.
Igandea, 16.00. Agorosin.

◆ Bergara-Lagun Onak

2. mailako jubenilak.
Larunbata, 16.00. Ipintza.

◆ Bergara-Eibartarrak

Lehen mailako infantilak.
Larunbata, 11.00. Ipintza.

ESKUBALOI PARTIDUAK

◆ Bergara-Jauja

Senior mutilak
(2. Territoriala)
Igandea, 11.00.
Labegaraieta kiroldegia.

◆ Bergara-Donibane

Senior mutilak
(2. Nazionala).
Igandea, 12.30.
Labegaraieta kiroldegia.

HIRU HAUNDIETARA
MENDI IRTEERA

Hurrengo asteburuan JARDUNeko gazte taldeak antolatuta hiru haundiak 3 egunetan igotzeko irteera egingo da. Urriaren 12tik 14ra bitartean Aizkorri, Anboto eta Gorbeara igoko dira. Lehen egunean Zalduondo, Aizkorri, Gatzaga ibilbidea egingo da. Bigarrenegun Gatzaga, Aramaio, Anboto, Urkiola; eta azken egunean Urkiola, Barazar, Gorbea eta Murua. Mendi irteerak 3.500 pzta. balio ditu eta mendizaleek furgoneta baten laguntza izango dute gauzak eramateko. Prezioan janaria eta lo egiteko tokia ere sartzen dira. Izena emateko JARDUNek Masterreka 13an duen egoitzara joan edota 76 08 19 telefonora deitu informazio gehiago jaso nahi izan ezkeru.

Miguel Galvan

Jo eta ke karatea erakusten

Miguel Galvanek 11 urte daramatza karate moderno irakasten eta bi aldiz Euskadiko txapelduna izanarik gogoz ekin dio aurtengo denboraldiari. Izan ere bere ardurapean dauden 5 urtetik gorako karatekek hainbat txapelketatan parte hartuko dute.

- Zer da karate modernoa?

- Karatea umeen izazera moldatzen saiatzen gara. Arte martzialen munduan aukera asko dago eta karatea beste kirol baten moduan planteatzen dugu.

- Edozein adinetako haurrekin aritzen zarete, ez?

- Bai, 4 urtetik 7 urtera bitarteko haurrekin aurre karate bat lantzen dugu. Batez ere psikomotrizitatea, distantziak etb. lantzen ditugu. 7 urtetik aurrera haurrak teknikak hobeto hartzen ditu eta handiek zinturoi beltza lortzen dutenean espezialitatea hartzen dute. Kontakto eta indar gehiagoko teknikak lantzen ditugu. 7 urteko haur bat Kick Boxingean edo horrelako beste disziplina batean sartzea ez da oso egokia.

- Zenbat gerriko daude karatean?

- Zuria, horia, laranja, urdina, marroia eta beltza. Gerriko batetik bestera pasatzeko puntuaketa sistema bat erabiltzen dugu. Klasera etortzen bada, bi puntu ematen dizkiogu e.a... eta nahikoa puntu lortzen ditue-

nean azterketa bat egiten dute gerriko altuagoa lortzeko. Sistema horrekin haurra kontzentratuago etortzen da eta disziplina aldetik ere asko irabazten dute.


- Karateak ze onura dakarkio kirolariari?

- Kirolariaren garapen fisikorako kirol konpletua da. Karatearen edozein teknika garatzeko fisikoki ongi egotea derrigorrezkoa da. Horrezaz gain, pertsonari segurtasuna ematen dio eta hona etortzen diren haur asko

medikuek bidalitakoak dira eurengan konfidantza hartzeko edo bestela lotsa galtzeko. Beste batzuk, aldiz, oso agresiboak direnak, karatearekin izaera moteldu dezakete.

- Asteazken zehar zenbat denbora entrentzen duzue?

- Astearte eta ostegunetan entrentzen dugu. Haurrekin arratsaldeko 6,30etatik 7,30etara eta nagusiekin 7,30etatik 9etara ibiltzen gara Martinez de Irala ikastolako gimnasioan.



"Astearte eta ostegunetan entrentzen dugu haurrekin eta helduekin"

"Askorentzat beren buruaz konfidantza hartzeko, lotsa galtzeko ona da karatea"



On Romani omenaldia

1 930ean On Roman herriko sendagileari omenaldia eskaini zion Bergarako herriak. Ekitaldi ugari antolatu ziren, tartean Sarrontzale Zintzotasuna-ko taldeak (sindikato katolikokoa) antzeztutako Anai Biak izeneko lana. Zarzuela moduko bat zen, antzeztu ezezik abestu ere egiten baitzuten aktore-aktoresek.

Jeronimo Etxanizen ardurapean, 30 bat lagun aritu ziren Novedades aretoko taula gainean. Antzerki saioa oso arrakastatsua gertatu zen eta bukatu ostean Udal Pelotalekuan bildu zen mahai gainean herritar ugari.

Argazkian agertzen diren artistak Sarrontzale Zintzotasuna-ko taldekoak dira eta guztien izenak jakiterik ezin izan dugun arren, horra hor gehien izen eta abizenak, ezkerretik hasita:

Goiko iladako gizakumeak: Ezezaguna, ezezaguna, Jeronimo Etxaniz (zuzendaria), Donato Gallastegi, Justino Laskurain, Saturnino Telonero, Juan Irizar, ezezaguna eta Antonio Lazkano.

Goiko iladako emakumeak: Unamuno (Angel Arangurenen andrea), Dina Lazkano, Julia Unamuno, Unamuno (Juan Irizarren andrea) eta Maria Ibarzabal.

Jarrita dauden emakumeak: Ezezaguna, Josefa Ugarte, Felisa Larrañaga, Asuncion Legorburu, Felisa Larraz eta ezezaguna.

Jarrita dauden gizakumeak: Felix Laskurain, Julian Zarzamendi, Julian Etxaniz, Jesus Peñalba, Angel Aranguren eta Eulogio Zabaleta.

Argazkia: Natalio Juaristi

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-denda

Orain SORALUZEN

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atek, manparak...

Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik



Erakusketa: Masterroka 14, behea BERGARA
Fabrika: Zigarrola 1, 8. pabiloia ARRASATE
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

ZUBIETA

elektragintza

**MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK**

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak: **CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18



Altzarien dekorazio eta erakusketa

- BETIKO LEIHOAK GAURKO TEKNOLOJIARI EGOKITUTA
- EZ HOTZIK, EZ ZARATARIK, EZ URIK!!
- LEIHO TERMOAKUSTIKOAK
- ATEAK
- ARMAIRUAK
- EGURREZ EGINDAKO LANAK

AROSZTEGIA

UGARTE

ALTZARIAK • DEKORAZIOA

San Juan auzoa 1 A 6. moduloa (Barruti)
Telefona eta Faxe: 76 54 91

**ZATOK GURE
ERAKUSKETA IKUSTERA**





GUIPUZCOANA

Paketean garraio eta banaketa

BERGARA

San Juan Erreka. Elgetara bidea.

Tfnoa: (943) 76 36 42 / Faxa: (943) 76 54 25